

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Ebroko Plan Hidrologiko berriaren aurka agertu da

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (EKH) Ur Kontseiluan izandako parte-hartzean, baliabideen iraunkortasuna bermatuko duten neurriak hartzea eskatu zuen

Lunes, 07 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak 2015-2021eko Ebroko Plan Hidrologiko berriaren aurka agertu da; aldi berean, baliabideen iraunkortasuna bermatuko duten neurriak hartzea babestu du.

Jarrera hori Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva García Balaguer-ek defendatu zuen Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (EKH) Ur Kontseiluan Foru Gobernuak izan zuen ordezkari modura (Zaragozan egin zen iragan astean).

Jarrera hori Nafarroako [Gobernuaren Programa Akordioa 2015-2019](#)an jasotako neurrietatik ondorioztatzen da. Hark ibai, laku, hezegune eta akuiferoen kudeaketa integratu eta iraunkorra babesteko asmoa zehazten du, Uraren zuzentarau markoarekin eta Uholdeen Zuzentarauarekin bat etorritik. Gainera, Nafarroako Gobernuak hondakin-urak arazteko sistema publikoen funtzionamendua ikuskatzea babesten du, bai eta aire nahiz uren kalitatearen ikuskapen zein ingurumen-kontrola hobetzea ere.

Akordioan jasotako neurri zehazten artean, Gobernuak Esako urtegiaren suspertzea etetea babesten du, izan daitezkeen aukerako beste irtenbideei buruzko eztabaida bat zabalduz; Riomayor urtegia egikaritzeko proiektua aztertzea Allon, inguruko nekazarien aurkakotasunari erreparatu; eta baliabide hidrologikoen azterketa bat eskatzea Valdegako akuiferoen ustiapen-proiekturako (Estellerria).

Gainera, Gobernuak foro honetan adierazi zuen Plan Hidrologikoak aurrezteko neurriak eta hornidura, saneamendu eta ureztatzeko sistemen eraginkortasunaren hobekuntza jaso beharko zituela, eta erauzte nahiz isurien eragina murriztearen aldeko apustua egin beharko zuela. Gainera, gizarte-partaidetza eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzeko beharra azpimarratu zuen. Alde horretatik, aipatu behar da plan berriaren Ebro igarotzen den bederatzi autonomia erkidegoetatik lau aurka agertzen direla.